

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AIREONTZI-BARRUALDEKO MANTENTZE-LAN OSAGARRIAK.	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0958		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Aeronautika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Aeronautikako mantentze-lan osagarriak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Aireontziko lan osagarriak.	Iraupena	150
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Aireontzi-kanpoaldeko mantentze-lan osagarriak.	Iraupena	40
	Aireontziko zerbitzu-lan osagarriak.		50
	Aeronautikako segurtasuna eta laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa (Zeharkakoa)		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1315_1 AIREONTZIKO MANTENTZE- ETA ZERBITZU-LAN OSAGARRIAK EGITEA gaitasun-ataleko LB3 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Hondakin-uren eta edateko uren sistemak deskribatzea eta sistema horien osagaiak identifikatzea.
- E1.1 Komuna osatzen duten multzoak edo zatiak, haren berezitasunak eta hura desmuntatzeko eta muntatzeko prozedura ohikoenak deskribatzea.
 - E1.2 Aireontziko sukaldeen eta komunen euste-mekanismoak azaltzea.
 - E1.3 Komunetako eta sukaldeetako sistemen elementu elektrikoak eta argiztapenekoak identifikatzea.
 - E1.4 Korrosioak kaltetzeko aukera handieneko eremuak zerrendatzea.
- A2: Barrualdeko ekipamendu-elementuen (besaulkiak, moketak, zorua, sabaia, alboko panelak, maletategia eta karga maneiatzeko sistemak, besteak beste) segurtasun-sistemak egiaztatzea eta haien mantentze-lanak egitea.
- E2.1 Aireontziaren barrualdeko ekipamendu-elementuak finkatzeko elementu mekaniko ohikoenak deskribatzea.
 - E2.2 Aireontziaren barrualdeko ekipamendu eta argiztapen osoarekin zerikusia duten elementu elektrikoak deskribatzea.
- A3: Aireontziaren barrualdeko ekipamendu-elementuak konpontzea, ezarritako prozeduren arabera.
- E13.1 Aireontziaren barrualdeko ekipamendu-elementuei egin ohi zaizkien konponketa mekanikoak deskribatzea.
 - E13.2 Aireontziaren barrualdeko ekipamendu-elementuei egin ohi zaizkien konponketa elektrikoak deskribatzea.

Edukiak

1. Aireontziaren barruko konfigurazioak.

- Hegazkin zibilen konfigurazioak.
 - Bidaiariak entretentzeko sistema.
 - Hondakin-uren eta edateko uraren sistema.
 - Larrialdietako argiztapen-sistema.
 - Barrualdeko ekipamendu zibila.
 - Ekipaje-sotoko karga-sistema.
- Garraio-hegazkin militarren konfigurazioa.
 - Larrialdietako argiztapen-sistema.
 - Misio-abisuko sistema.
 - Kargak maneiatzeko sistema.
 - Barrualdeko ekipamendu militarra.

2. Aireontziaren barrualdeko mantentze-lan mekanikoak.

- Hegazkin zibiletako mantentze-lan espezifikoa.
 - Barrualdeko ekipamendu-elementuen mantentze-lanak. Besaulkiak, maletategiak, panelak, ateak, zorua eta leihoak.
 - Garbitasuna.
 - Urratuak ezabatzea.
 - Konponketa plastokimikoak.
 - Pintura-ukitu estetikoak.

- Hondakin-uren eta bestelako elementu korrosiboen eraginez korrosioak kaltetzeko aukera handia duten eremuak eta haiek ikuskatzeko irizpideak.
- Mailetak kargatzeko eremuak eta haietara sartzeko ateak. Karga-ateetan kolpeek, urratuek, isuriek eta junturen presurizazio-egoerak eragindako kalteak ikuskatzeko irizpideak.
- Aireontziaren segurtasun-elementuak. Salbamendu-jakak, -baltzak, botika-kutzak, su-itxalgailu eramangarriak eta oxigeno-botila eramangarriak. Iraungitzeari eta egoera zuzenari buruzko ikuskapen-irizpideak.
- Hegazkin militarretako mantentze-lan espezifikoak.
 - Aireontziaren barrualdeko ekipamendua, bete beharreko misioaren arabera: itsas patruila, paraxutista-jaurtiketa, karga-jaurtiketa.
 - Aireontziaren barrualdeko ekipamendu-elementuen segurtasuna. Paraxutista-eserlekuak eta -kableak, esku-oheak eta kargak jaurtitzeko sistema.
 - Elementu korrosiboen eraginez korrosioak kaltetzeko aukera handia duten eremuak. Ikuskapen-irizpideak.
 - Segurtasun-elementuak. Baltzak, botika-kutzak, su-itxalgailu eramangarriak, oxigeno-botila eramangarriak eta paraxutistak jasotzeko barrak. Iraungitzeari eta egoera zuzenari buruzko ikuskapen-irizpideak.
- Dokumentazio tekniko, tresneria eta erremintak.
- Sistemaren arreta-neurri espezifikoak.

3. Aireontziaren barrualdeko mantentze-lan elektrikoak.

- Barrualdeko argiztapen-sistema.
 - Pilotu-kabinako argiztapen- eta adierazle-sistema.
 - Bidaiari-kabinako eta paraxutista-kabinako argiztapena.
- Larrialdietako argiztapen-sistema.
 - Larrialdietako adierazleen argiztapena.
 - Larrialdietako osagaien bateria osagarrien sistemak.
 - Kanpoko larrialdietako barrualdeko argiztapen-osagaiak.
- Dokumentazio tekniko, tresneria eta erremintak.
- Sistemaren arreta-neurri espezifikoak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Aeronautikako mantentze-lan osagarriak